

aurkibidea sumario sommaire

kantuz 92

Argitalpena/Edita:

Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak / Confederación de Coros del País Vasco

Helbidea / Dirección:

234 postakutxatila. Plaza Zaharra, 1-2 solairua (Idiaker, Jauregia). 20400 Tolosa (Gipuzkoa).

Telefonoa / Teléfono:

943 670 013

E-posta/E-mail:

koralakeae@euskalnet.net

Web: www.koralakeae.com

Babeslea/Patrocinaria:

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, Kultura Ministerioa/Consejería de Cultura del Gobierno Vasco, Ministerio de Cultura

Koordinatzailea / Coordinadora:

Nerea Pikabea Amundarain

Diseinua / Diseño:

Iñigo Puerta

Kolaboratzaileak / Colaboradores:

Amaia Goikoetxea Orbegozo, Dabid Jimenez (argazkiak), Amaia Garmendia, Enrique Azurza.

Frantseseko itzultzailea / Traductrice:

Dominique Lambert

Beste itzulpenak/Otras traducciones:

Amaia Goikoetxea Orbegozo, Maria Agirre, Amaia Garmendia.

Inprimategia / Imprenta:

Gertu Inprimategia. Oñati

Babesleak / Patrocinadores:



- 3 Editoriala
- 4 Olabide Bartzelonan / Olabide en Barcelona
- 5 Udaberria Castellon / Udaberria en Castellón
- 6 Kantika Korala Basilean / Kantika Korala en Basilea
- 7 Sarea eta Zozoak Italian / Sarea y Zozoak en Italia
- 8 BAE Konposizio lehiaketa; Jatorki abesbatza / Concurso de composición de BAE; coro Jatorki
- 9 Zigor Koralak 25 urte / Zigor Korala, 25 años
- 10 Schola Cantorum 70 urte / Schola Cantorum 70 años
- 11 Beltz espiritualak Gary Gradenekin / Negros espirituales con Gary Graden
- 12 Kantakaren zarzuela / La zarzuela de Kantaka
- 13 Hodeiartz eta Oroith Sardinian / Hodeiartz y Oroith en Cerdeña
- 14-17 Landarbaso eta Orereta Txinako Abesbatzen Olinpiadetan / Landarbaso y Orereta en China, en las Olimpiadas Corales
- 18 Oroith 25 urte / Oroith, 25 años en el País Vasco
- 19 Txintzarri 50 urte / Txintzarri, 50 años
- 20 Eresargi 25 urte / Eresargi, 25 años
- 21 Itxaso 25 urte / Itxaso, 25 años
- 22 Bizi Kantuz CDa / Bizi Kantuz en CD
- 23 Iparraldea kantuz
- 24-27 Reportaje 42. Tolosako Abesbatza Lehiaketa erreportajea
- 28-31 Munduko Gazte Abesbatza Donostian / Coro Mundial de Jóvenes en Donostia
- 32-33 Zuzendaritza ikastaroa / Curso de dirección
- 34 III. Gazte tailerra abian / III. Taller juvenil en marcha
- 35 Abesbatzen arteko bilera Madrilen / Reunión coral en Madrid
- 36-37 Laburrak / Breves
- 38-39 Editorialetako albisteak / Novedades editoriales

harpidetza suscripción abonement

Jaso ezazu Kantuz etxean!

¡Reciba el Kantuz en casa!

Recevez chez-vous le Kantuz!

-Zenkaki bakarra/Ejemplar suelto/Un número:

2,5 €

-Zenkaki bakarra (atzerria)/Un número (étranger):

3,5 €

-Urteko harpidetza (3 zenbaki)/Suscripción anual (3 números)/ Abonnement annuel (3 numéros):

7 €

-Urteko harpidetza (atzerria)/Suscripción anual (extranjero)/Abonnement annuel (étranger):

10 €



EDITORIALA

Kantuz-eko adiskideok,

Udazkeneko zenbaki berria aurkezten dizuegu, eta data hauetan ohikoa den legez, abesbatzen ekitaldi pila batekin beteta dator udazkena.

Azalean, beltz espiritualei buruz Tolosan egingo den tailerra nabarmendu dugu. Gary Graden zuzendari estatubatuar ospetsuak emango du, Stockholmeko St Jacob abesbatza ezagunaren zuzendariak. GAFen ekimen horrek, abesbatzeta kantari eta zuzendari askoren jakin-mina piztu du.

Urteroko Topaketa eta Gary Gradenen ikastaroa Tolosako Abesbatza Lehiaketaren atariko ekitaldiak izango dira; izan ere, garai honetan abesbatzen munduarentzat ezinbesteko hitzordua da Tolosako Lehiaketa. Aurten hiru euskal ordezkari izango ditugu: batetik, elkarrekin aurkeztuko diren Ordiziako Oroith eta Tolosako Hodeiartz abesbatzak, eta bestetik, Gasteizko Crescendo haur abesbatza. EAEtik zorterik onena opa diegu.

Munduko Gazte Abesbatzak Donostian egindako egonaldiaren berri ere jaso dugu; antolakuntza zein musika aldetik oso arrakastatsua izan zen. Eta, gainera, Orereta eta Landarbaso abesbatzak zori ondu nahiko genituzke uda honetan Txinan egindako Abesbatzen Olinpiadetan jasotako sariengatik. Kantuz-ek abesbatza horietako zuzendariak elkarrizketatu ditu.

Krisiaren eraginez diru-laguntzetan izan den murrizketa dela eta, haur abesbatzen zuzendaritza eta pedagogia ikastarorik ez da egingo aurten. Datorren urtean ikastaroari berriro heltzea espero dugu. Kantaldi Irekiari eutsi diogu: abenduko ohiko egunetan izango da, baina aurten Zarautzen egingo da.

Aurten urteak betetzen dituzten hainbat abesbatzaren urteurrenaren ere ospatu nahi ditugu. Kantuz-en bitartez euren ibilbidearekin jarraitzea animatu nahi ditugu. Hori guztia zuen interesekoa izango delakoan. Agur bero bat.

EDITORIAL

Amigos y amigas de Kantuz,

Presentamos un nuevo número de otoño, que, como es habitual en estas fechas, viene lleno de actividades corales.

Destacamos en la portada el taller sobre negros espirituales que impartirá en Tolosa el prestigioso director norteamericano Gary Graden, director del afamado coro St Jakob de Estocolmo. Esta iniciativa de GAF ha despertado ya el interés de numerosos coralistas y directores.

La habitual Topaketa y el curso de Gary Graden servirán de preámbulo al Certamen Coral de Tolosa, cita obligada del mundo coral en esta época. Este año habrá tres representantes vascos: los coros Oroith de Ordizia y Hodeiartz de Tolosa, en una sola formación conjunta, y el coro infantil Crescendo de Vitoria-Gasteiz, serán los representantes vascos. Desde EAE les deseamos mucha suerte.

Damos cuenta también de la presencia del Coro Mundial de Jóvenes en Donostia, que constituyó todo un éxito musical y organizativo, y felicitamos también a Orereta y Landarbaso por los premios obtenidos en las Olimpiadas Corales celebradas en China este verano. Kantuz ha entrevistado a sus directores.


El recorte de las subvenciones debido a la crisis nos obliga este año a prescindir del curso de dirección de coros infantiles y pedagogía, que esperamos poder recuperar el próximo año. Se mantiene el Canto Abierto en sus fechas habituales de diciembre, aunque este año se celebrará en Zarautz.

Queremos también celebrar los aniversarios de un buen número de coros que cumplen este año diferentes efemérides y a los que desde Kantuz animamos a continuar en sus trayectorias. Esperamos que todo ello sea de vuestro interés. Saludos cordiales.



Jar ezazu iragarkia Kantuzen!
¡Anúnciese en Kantuz!
Fais ta pub sur Kantuz!

koralakeae@euskalnet.net



Olabide Bartzelonan

Gasteizko Olabide abesbatzak hainbat eguneko trukea egin zuen aurtengo udaberriari Bartzelonako Can Ponsic musika eskolako L'ARC abesbatzarekin. Maiatzeko zubian lau eguneko bidaia egin zuten gasteiztarrek Bartzelonara.

Bartzelonako bisita jaso zuten lehendabizi Aste Santuan, eta ondoren, Olabide ikastolako abesbatzakoak joan ziren Kataluniara. San Prudentziotako festa aprobetxatuz, Bartzelonara joan ziren apirilaren 29tik

maiatzaren 2ra.

Bartzelonako Sant Boi herrian eman zuten kontzertua. Euskal musika eta euskal konpositoreen lanak eskaini zituzten batez ere, baina kantu modernoagoak ere kantatu zituzten. Txalo zaparrada handiak jaso zituzten gasteiztarrek.

Bartzelonan familietan lo egin zuten. Izan ere, Estitxu Txurruka Olabide abesbatzaren zuzendariaren hitzetan, “umeei asko gustatzen zaie besteen etxeetan lo egitea. Horrez gain, egin ditugun truke guztietan primeran pasatu

dugu, jende asko ezagutu dugu, musika berria abestu dugu, hiri, ohitura eta herrialde desberdinak bisitatu ditugu... Gure taldea bera ere horrelakoetan batu egiten da, elkar ezagutzeko aukera gehiago izaten dute, ia egun osoa ematen dugu elkarrekin, eta horrek eragin handia dauka koruko partaideen artean”.

Ibilbide luzeko abesbatza

Olabide ikastolaren abesbatza 55 abeslari daude 10 eta 17 urte bitartekoak. Ikastola sortu zenetik dute korua. Estitxu Txurrukak 11 urte daramatza zuzendari lanetan. Aurretik txikien abesbatza zuzentzen bost urte inguru eman zituen.



Olabide en Barcelona

La escolanía Olabide de Vitoria-Gasteiz ha realizado un intercambio de varios días esta primavera con el coro L'ARC de la escuela de música Can Ponsic de Barcelona. En el puente de mayo, los vitorianos realizaron un viaje de cuatro días a Barcelona.

Primero en Semana Santa recibieron la visita de los coralistas de Barcelona, y posteriormente, los chicos y chicas de la ikastola Olabide viajaron hasta Cataluña. Del 29 de abril al 2 de mayo se fueron a

Barcelona, aprovechando la fiesta de San Prudentio.

Ofrecieron el concierto en la localidad Sant Boi de Barcelona. Interpretaron principalmente música vasca y obras de compositores vascos, pero también cantaron canciones más modernas. El público agradeció a los vitorianos con una gran ovación.

En Barcelona durmieron en familias. Según nos indica la directora de la escolanía Olabide, Estitxu Txurruka, “a los niños les gusta mucho dormir en casas de otras personas. Además,

en todos los intercambios que hemos realizado hemos pasado muy bien, hemos conocido a mucha gente, hemos cantado nueva música, hemos visitado ciudades, costumbres y culturas distintas... En este tipo de situaciones nuestro grupo se une, tienen la ocasión de conocerse un poco más, y todo ello tiene una gran repercusión entre los coralistas”.

Una escolanía con una larga trayectoria

La escolanía de la ikastola Olabide cuenta con 55 coralistas, de entre 10 y 17 años. En la ikastola ha habido coro desde su fundación. Estitxu Txurruka lleva 11 años como directora. Antes dirigió durante cinco años la pre escolanía.

Udaberria Castellon

Gasteizko Udaberria eskolaniarentzat aurtengo urtea irteera urtea izan da, izan ere apirilean bidaia egin zuen Castelloko Burriana herrira. Cor Britten haur eta gazte taldearekin harremanetan jarri eta bertara joan ziren. Laster haiek etorriko dira.

Nagore Alanguaren neska-mutiek maiatzeko zubia aprobetxatu zuten Castelloko abesbatzarekin lau eguneko bidaia egiteko. Udaberria musika eskolako den koru arabarra internet bidez jarri zen harremanetan valentziarrekin.

Burriako Musika Eskolako auditorioan kontzertua eskaini zuten bi taldeek. Gasteiztarrek Hamilton, Ibañez, Mendelssohn, Elberdin eta The Beatles taldeen lanak eskaini zituzten, besteak beste.

Belan eta kanoan ibiltzeko aprobetxatu

zuten bidaia, eta gainera, falla-egile artisau bati bisita egin zioten. Koruko kideek valentziarren etxeetan egin zuten lo. Nagore Alanguaren esanetan, “era horretako hartu-emanek asko aberasten dute taldea, musikalki zein pertsonalki. Batzuentzat etxekorik gabe bakarrik ateratzen ziren lehenengo aldia zen eta bost egunez taldeko dinamikara egokitu behar izan dute. Gainera, era horretako jarduerak baliatzen

ditugu koruko kideen musika gaitasun onena ateratzeko eta hala lan zorrotzagoa egiteko”.

Gasteiztarrek ilusio handiarekin espero dute Cor Britten taldearen bisita, eta uste dute urrian izango dela hori.

22 urteko lana

Nagore Alanguak zuzentzen duen taldea 10 eta 18 urte bitarteko 25 neska-mutielez osatuta dago. 1988an sortu zen. Alanguak zortzi urte daramatza zuzendari lanetan, baina ia bizitza guztia musika eskolan murgilduta. Izan ere, piano-jotzailea eta koruko kidea izan da.



Udaberria viajó a Castellon

Este año para la escolanía vitoriana Udaberria de Vitoria-Gasteiz ha sido un año de salidas, ya que en abril realizó un viaje a la localidad de Burriana en Castellón. Se trata de un intercambio con el grupo infantil y juvenil Cor Britten, de quienes esperan la visita.

Los chicos y chicas de Nagore Alangua aprovecharon el puente de mayo para realizar un intercambio de cuatro días con la coral castellonesa. La coral alavesa, perteneciente a la escuela de música Udaberria, se pusieron

en contacto con los valencianos a través de internet.

Ofrecieron un concierto conjunto en el auditorio de la escuela de música de Burriana. Los vitorianos interpretaron, entre otras, obras de Hamilton, Ibañez, Mendelssohn, Elberdin y The Beatles.


Aprovecharon el viaje para hacer vela y piragüismo, y además, para visitar a un artesano fallero. Los coralistas durmieron en las familias de los valencianos. Según Nagore Alangua, “este tipo de intercambios enriquecen al grupo tanto musicalmente como personalmente. Para algunos era la primera vez que salían de casa solos y tuvieron que adaptarse a la dinámica del grupo

durante cinco días. Además, aprovechamos estas actividades para sacar las mejores cualidades musicales de los coralistas y así realizar un trabajo un poco más exigente”.

Los vitorianos esperan con gran ilusión la visita del Cor Britten, que prevén que será el próximo octubre.

22 años de trabajo

La coral dirigida por Nagore Alangua está compuesta por 25 chicos y chicas de entre 10 y 18 años. Se fundó en el año 1988. Alangua lleva como directora ocho años, pero prácticamente lleva toda la vida dentro de la escuela de música, ya que también ha sido coralista y pianista.



Basilea, gazte abesbatzen elkargunea

Mundu guztiko 500 bat gazte kantari Suitzako Basilea hirian elkartu ziren bost egunez joan den maiatzean. Basilio Astulezek zuzendutako Leioa Kantika Korala aukeratu zuten hiru urtean behin ospatzen den Europäisches Judgenchor Festival Basel gazte abesbatzen jaialdi europarrean parte hartzeko.

Aurten jaialdia egiten zen zazpigarren urtea zen. 1992az geroztik, jaialdia hiru urtez behin egiten da. Maiatzaren 12tik 16ra toki

desberdinetatik gonbidatutako hamabi abesbatzak parte hartu zuten, tartean maila handiko taldeak, munduan oso ezagunak diren abesbatzak: besteak beste, Hungariako Pro Musica, Esloveniako Carmina Slovenica edo Holandako Netherlads Children's Choir. Eta hain zuzen ere, Kantika izan da lehiaketa horretako zazpi edizioetan parte hartzeko aukeratutako espainiar estatuko abesbatza bakarra. Abesbatza gehienak suitzarrak ziren, baina baziren Italia, Txina, Lituania, Austria, Eslovenia, Hungaria, Holanda eta Suediako

taldeak ere.

Arlo desberdinetako kontzertuak eskaini zituzten: musika modernoa, folklorea, musika erlijioso, eta abar. Gainera, hainbat tailer eta hiltzalditan parte hartu zuten, haur eta gazte abesbatzen artean bikaintasuna sustatzeko.

Kontserbatorioaren 30. urteurrena

Leioako Kantika Koralak eta San Juan Bautista abesbatzak kontzertua eskainiko dute urriaren 23an Bilboko Euskalduna Jauregian, partaide diren Musika Kontserbatorioak 30 urte betetzen dituela-eta. Kantika Koralak joan den abenduan estreinatutako Josu Elberdinen Magnificat obra eskainiko du.

Informazio gehiago:

www.ejcf.ch

www.leioakantikakorala.com

La mayoría de coros que participaron eran suizos, aunque había otras agrupaciones procedentes de Italia, China, Lituania, Austria, Eslovenia, Hungría, Holanda y Suecia.

Ofrecieron conciertos bajo temáticas diferentes: música moderna, folklore, música religiosa, etc. Además, participaron en diversos talleres y conferencias con la clara intención de promover la excelencia en el canto coral infantil y juvenil mundial.

30 aniversario del Conservatorio

Kantika Korala y el Coro San Juan Bautista de Leioa ofrecerán un concierto el día 23 de octubre en el Palacio Euskalduna de Bilbao, con motivo del 30 aniversario del Conservatorio de Música a la que pertenecen. Kantika Korala interpretará la obra Magnificat de Josu Elberdin, cuyo estreno tuvo lugar en diciembre del año pasado.

Más información en:

www.ejcf.ch

www.leioakantikakorala.com



Basilea, encuentro coral juvenil

Cerca de 500 jóvenes cantantes de todo el mundo convivieron durante cinco días en mayo en la ciudad suiza de Basilea. El coro infantil Leioa Kantika Korala dirigido por Basilio Astulez fue

elegido para participar en el festival coral juvenil europeo Europäisches Judgenchor Festival Basel, que se celebra cada tres años.

Este año el festival cumplía su séptima edición. Desde 1992, este festival se celebra cada tres años. Entre el 12 y 16 de mayo se reunieron un total de doce coros invitados de muy diversa procedencia, entre ellos se encuentran agrupaciones de altísimo nivel y reconocido prestigio en el mundo coral, tales como Pro Musica de Hungría, Carmina Slovenica de Eslovenia o Netherlads Children's Choir de Holanda. Kantika fue el único coro del estado español que fue seleccionado en las siete ediciones de este importante certamen.

Sarea eta Zozoak Toskanan

Ugaoko Sarea Abesbatzak eta Getxoko Abeslari Lagunen Abesbatza-Zozoak taldeak, joan den ekainean Italiako Toskanan egin zen "Chianti Fiorentino e Senese" jaialdian parte hartu zuten. Jaialdira hurbildutako ehundaka ikusleak hunkituta utzi zituzten bizkaitarrek euren kantaldiarekin.

Italiako Castellina in Chianti herrian joan den ekainaren 6an egindako jaialdian parte hartu zuten bi abesbatzek Euskal Herriko ordezkari gisa. Irma Rutkauskaitek

zuzendutako bi abesbatzek euskara hutsean kantatu zuten dantza, txistu eta danbolinarekin lagunduta. Ekitaldiaren hasieran kalejira egin zuten euskal jantziak soinean zituztela.

Hiru eguneko bidaian Toskana eskualdea eta inguruko beste herri batzuk ezagutzeko aukera izan zuten, hala nola, Pisa, Siena, San Gimignano, Monteriggioni, Tavernelle eta Greve in Chianti herriak. Gainera, ekainaren 5ean, Impruneta herriko auditorioan kontzertua eskaini zuten. Oraingo honetan kantu ghiago eskaini

zituzten: eliz kantuak, eta nazioarteko eta euskal abesti herrikoiak.

Zuzendaritza aldaketa

Duela zazpi urte korua sortu zenetik, aro berri bati ekin dio udazken honetan Ugaoko Sarea Abesbatzak. Ius Perez basauriarra izango da aurrerantzean abesbatzaren zuzendaria Irma Rutkauskaiten ordeiz.

Ugaoko Sarea Abesbatzaren zuzendaritza taldearen esanetan, "Ius Perek ez etorrerarekin etapa berri bat hasten da, eta oso pozik gaude. Ius gizon gaztea da eta esperientzia handia du. Ideia askorekin eta berritzeko asmoarekin dator. Horrek guztiak mesede egingo digu". Bide batez, Irma Rutkauskaitek egindako lan bikaina azpimarratu dute.



Sarea y Zozoak en la Toscana

El coro Ugaoko Sarea abesbatza de Ugao y el coro Abeslari Lagunen abesbatza-Zozoak de Getxo tomaron parte en junio en el "X Festival Internacional de Canto Vocal del Chianti Fiorentino e Senese", en la Toscana de Italia. La actuación de los vizcaínos emocionó a los cientos de

espectadores reunidos en el festival.

Las dos corales vascas participaron el 6 de junio en ese festival representando a Euskal Herria, en la localidad italiana Castellina in Chianti. Los dos coros dirigidos por Irma Rutkauskait interpretaron un programa íntegramente en euskara, acompañados de la danza, el txistu y el tamboril. Realizaron un pasacalle previo a la actuación ataviados con los trajes típicos de la cultura vasca.

Además, aprovecharon el viaje de tres días para conocer la región de la Toscana y visitar pueblos como Pisa, Siena, San Gimignano, Monteriggioni, Tavernelle o Greve in Chianti. Ofrecieron otro concierto el día 5 de junio en el auditorio de la localidad de Impruneta. En esta ocasión el programa interpretado fue variado, incluyendo obras de estilo sacro,

canciones populares internacionales y canciones populares vascas.

Cambio de dirección

La Coral de Ugao-Miraballes-Ugaoko Sarea Abesbatza ha iniciado este otoño una nueva etapa con el cambio de dirección, tras los siete años desde su fundación. El basauritarra Ius Pérez sustituirá a Irma Rutkauskait en la dirección de este grupo.

"Estamos ilusionados con esta nueva etapa que se abre con la llegada de Ius Pérez, un hombre joven y con una dilatada experiencia. Viene con nuevas ideas y un perfil innovador que nos aportará aspectos muy positivos", comentan desde la dirección de Ugaoko Sarea Abesbatza, que agradecen el impecable trabajo profesional de Irma Rutkauskait.



La niña morena, saritutako obra

Bizkaiko Abesbatzen Federazioak antolatzen duen "BBK Sari Nagusia" XIV. Konposizio Lehiaketak badu irabazlea. Ignacio Parres madrildarrak konposatutako obra bat da: La niña morena izena du. Lehiaketa honetarako habanera eskatu dira, lau ahots nahasiz osatutako abesbatzek kantatzeko; euskaraz edo gaztelaniaz izan zitezkeen.

Bigarren saria Sabin Salaberri gasteiztarrarentzat izan da, Agur Izarrak kantuagatik. Hirugarren tokian geratu da Xavier Ferrer valentziarra, Amanece en Ondarroa abestiagatik.

Epaimahaia honako hauek osatu dute: Katalin Hajnóczy, Javier González eta Roberto

Perdiguero. Guztira 16 obra jaso dira eta hainbat tokitatik iritsi dira gainera: Getxotik, Valentziatik, Burgostik, Alegiatik eta Tubingendik (Alemania). Obra horiek 2011ko udaberrian aurkeztuko dira kontzertu baten bidez.

Lehiaketaren helburua kantatzeko moduko errepertorioa sortzea da eta musikari dagokionez kantuak duen interesak garrantzia handiagoa izango zailtasunak berak baino. Beraz, koru amateur batek kantatzeko moduko obra izan behar du.

Informazio gehiago:
www.euskalnet.net/bae/

La niña morena, obra premiada

El XIV Concurso de Composición para Coros "Gran Premio BBK" organizado por la Federación de Coros de Bizkaia ya tiene ganador. Se trata de una obra compuesta por el madrileño Ignacio Parres titulada La niña morena. Para esta ocasión se han requerido habaneras, escritas para coros de cuatro voces mixtas, en euskara o castellano.

El segundo premio ha sido para el vitoriano Sabin Salaberri por la obra Agur Izarrak. Ha quedado en un tercer lugar el valenciano Xavier Ferrer con su obra Amanece en Ondarroa.

El jurado ha estado compuesto por Katalin Hajnóczy, Javier González y Roberto Perdiguero. Se han recibido 16 obras de diversos lugares, de Getxo, Valencia, Burgos, Alegia y Tubingen (Alemania). Las obras se presentarán en un concierto en primavera de 2011.

El objetivo del concurso es crear un repertorio realmente cantable cuyo interés musical sea mayor que su dificultad, de tal manera que la obra pueda ser interpretada por un coro amateur.

Más información en:
www.euskalnet.net/bae/

Jatorkiren udako bira

Jatorki Abesbatzak eta Getxoko "Andres Isasi" Musika Eskolako Hamaika Kamerata Flauta Taldeak arrakasta handia izan dute aurtengo udan egin duten biran. Entzuleen aldetik ere harrera ona izan dute. Bilboko abesbatzak bost kontzertu eskaini ditu guztira uztaile eta abuztua bitartean: Santo Domingo de la Calzadako (Errioxa) katedralean, Portugaleten, Gasteizen, eta Soriako Calatañazor eta Abejar herrietan.

Gira veraniega de Jatorki

Jatorki Abesbatza, junto a Hamaika Kamerata Flauta Taldea de la Escuela de Música "Andrés Isasi" de Getxo, han completado con éxito y gran acogida por parte del público la gira que han realizado este verano. La coral bilbaína ha ofrecido un total de cinco conciertos entre julio y agosto de este año: en la Catedral de Santo Domingo de la Calzada (La Rioja), en Portugalete, en Vitoria-Gasteiz, y en las localidades sorianas de Calatañazor y Abejar.

Zigor Korala 25 años

Barakaldoko Zigor Abesbatzak 25 urte bete ditu aurten. Urteurren hori ospatzeko, urte guztian hainbat ospakizun egin dituzte. Barakaldon Bizkaiko Abesbatzen Eguna ospatu zenetik, hainbat emanaldi eskaini dituzte 2010ean.

Abesbatza honek 1985ean hasi zuen ibilbide artistikoa, eta ordutik, kontzertu askotan parte hartu du Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin. Horien artean garrantzitsuenak, musikaren urte europarrean Max Bragadorek zuzendaritzapean eta Lopez Cobosekin (grabazioa) egindakoak. Baita, García Asensiok Bilboko Arriaga antzokian eta Bartzelonako Palau de la Musican zuzendutakoak ere. Gainera, Haendelen "Mesias" kantatu du du hainbat urtez Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako eguberrietako kontzertu sinfoniko-koraletan.

Eskaini dituzten emanaldien artean Ariel Ramirezen "MISA CRIOLLA" nabarmendu beharra dago; Los Calchaquis taldearekin bi alditan kantatu dute. Gainera, Asturiasen, Avileseko Nazioarteko Lehiaketan parte hartu dute, eta Murtzian, Ciezako Lehiaketa Nazionalan.

Barakaldoko kultur mugimenduan gogotsu parte hartzen dute: Karmengo jaietan, eguberrietako kontzertuetan, Santa Zezilia egunean eta abar. Gaur egun, Amaia Gomez Etxebarriak zuzentzen du abesbatza.

Ospakizunak udazkenean

Abesbatzak aurten kaleratu du lehenengo diskoa. Bertan euskal musika herrikoia, eliz-musika eta beste hainbat kanta bildu dituzte.

Herriko beste koru batzuekin batera, azaroan kontzertua eskaintzeko asmoa dute Barakaldoko antzokian. Gainera, lagunarteko bazkaria egingo dute, eta horretarako, hogeita bost urteetan taldeko partaide izan diren kantari eta zuzendari guztiak elkartu nahi dituzte.

Zigor Korala de Barakaldo ha cumplido 25 años este año. Con motivo de su aniversario, llevan todo el año de celebraciones. Desde que se celebrara el Día Coral de Bizkaia en Barakaldo, han realizado varias actuaciones a lo largo del año 2010.

El Día Coral no tiene otra pretensión que no sea la de demostrar a los vizcaínos la fuerza del movimiento coral; es una llamada a la importancia que el mundo coral debiera tener en los diferentes estamentos sociales y su necesidad de apoyo e impulso.

Este coro inicia su andadura artística en 1985. Desde entonces ha participado con la Orquesta Sinfónica de Bilbao en numerosos conciertos, señalando como más importantes los realizados en el año europeo de la música, bajo la dirección de Max Bragado y López Cobos (grabación), así como los dirigidos por García Asensio en Bilbao (Teatro Arriaga) y en Barcelona (Palau de la Música). Además, ha cantado durante varios años en los conciertos sinfónico-corales de Navidad organizados por la Diputación Foral de Bizkaia con la interpretación de "El Mesias" de Haendel.

Hay que destacar su interpretación de la "MISA CRIOLLA" de Ariel Ramírez, junto al grupo Los Calchaquis, en dos ocasiones. Ha participado en el Certamen Internacional de Avilés (Asturias) y en el Certamen Nacional de Cieza (Murcia).

Forma parte activa del tejido cultural de Barakaldo, mediante su participación en las Fiestas del Carmen, Conciertos de Navidad, Santa Cecilia, etc. Actualmente su dirección se encuentra bajo la batuta de Amaia Gómez Etxebarria.

Celebraciones en otoño

La coral ha editado este año su primer disco compacto en el que se recoge música popular vasca, música sacra y un repertorio variado.

En noviembre tienen previsto ofrecer un concierto en el teatro de Barakaldo, junto con las corales locales. Además, realizarán una comida de hermandad, en la que se pretende reunir a todos los coralistas y directores de estos veinticinco años.





Schola Cantorum-ek 70 urte

Barakaldoko Schola Cantorum abesbatza hainbat ospakizun egiten ari da aurten, bere 70. Urteurrena dela eta. Datorren urteko uztailean bukatuko dira ekitaldia. Santa Zezilia inguruan eskainiko du emanaldi nagusia ahots lodien abesbatzak.

Barakaldoko San Bizenteko Schola Cantorum ahots lodien korua 1940an sortu zen Pazko-egunez, izen bera duen elizaren babespean. Sortzaileak honako hauek izan ziren: Emiliano Muñoz Iztegui (lehenengo presidentea), Guillermo Elordi organo-jolea, eta Guillermo Kortazar, lehenengo zuzendaria 1966an hil zen arte.

Lehen pausoak ahots lodien abesbatza gisa eman bazituen ere, hainbat garaitan ahots nahasiz osatuta egon da korua, eta 100 ahots egoteraino iritsi da. Hainbat

kontzertu sakro, zarzuelak, operak, orkestrekin osatutako emanaldiak (Beethovenen 9. sinfonia eta abar) eskaini ditu. OLBErekin parte hartu izan du, Aida eta La Forza del Destino bezalako operetan.

Tolosako Abesbatza Lehiaketan parte hartu zuten 1986an eta 1987an. Hainbat bidaia egin dituzte Europara.

Gaur egun korua 35 ahots lodiz osatuta dago, Iñaki Hernandez Robledoren



70 años de Schola Cantorum

Como conmemoración del 70 aniversario de la fundación, el coro Schola Cantorum de Barakaldo está realizando una serie de celebraciones que finalizarán en julio del año que viene. Esta coral de voces graves ofrecerá la actuación más importante en torno a Santa Cecilia.

La Schola Cantorum de San Vicente de Barakaldo se fundó como coro de voces graves el día de Pascua de Resurrección

de 1940, al amparo de la Parroquia de su mismo nombre. Fueron sus fundadores entre otros, Emiliano Muñoz Iztegui (primer presidente), el organista Guillermo Elordi, y Guillermo Cortazar, quien fuera su primer director hasta la fecha de su fallecimiento en 1966.

Pese a su fundación como grupo coral de voces graves, en varias épocas ha estado compuesta por voces mixtas, llegando a contar con 100 voces. Ha realizado varios conciertos sacros, zarzuelas, óperas, obras con orquesta (9ª sinfonía de Beethoven, etc...). Ha colaborado con la ABAO, para intervenir en óperas como Aida y La Forza del Destino.

zuzendaritzapean, eta Javier Urraca Iglesias da presidentea.

Hemendik eta ikasturte bukaerara hainbat kontzertu eskainiko dituzte. Garrantzitsuena 70. urteurreneko kontzertua, Barakaldoko San Bizente elizan eskainiko dutena Santa Zezilia egunaren inguruan. Gainera, Miranda Ebroke habanera lehiaketan parte hartzeko asmoa dute 2011n.

Participaron en el certamen Internacional de masas corales de Tolosa en los años 1986 y 1987. Han realizado numerosos viajes por Europa.

Actualmente el coro está compuesto de 35 voces graves, bajo la batuta de Iñaki Hernández Robledo. En la actualidad ostenta la presidencia Javier Urraca Iglesias.

De aquí a fin de curso, ofrecerán varios conciertos. El más importante será el concierto del 70 aniversario, que ofrecerán en torno al día de Santa Cecilia en la parroquia de San Vicente de Barakaldo. Además, en 2011 tienen previsto participar en el certamen de habaneras de Miranda de Ebro.

Beltz spiritualak

Gary Gradenen erakargarritasuna eta indarra agerian geratu dira behin baino gehiagotan, Tolosako Abesbatza Lehiaketan parte hartzeraren ondoren. Suedian bizi den zuzendaria Tolosan izango dugu berriro hilabete honetan, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatutako udazkeneko ikastaroko irakaslea izango baita.

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak musika espiritualari buruzko ikastaro bat antolatu du udazken honetarako. Urriaren 23an eta 24an Gary Graden suediar zuzendariak ikastaro hori emango du Tolosan. Federazioak urtero antolatzen duen ikastaro honek arrakasta eta oihartzun handia ditu abesbatzen munduan.

Iazko arrakasta ikusita eta parte-hartzaileen kopurua gehiegi ez mugatzearen, tailer moduan antolatu da aurtengo ikastaroa. Zuzendariari zein abeslariari zuzendutakoa da eta Tolosako Eduardo Mocoeroa Udal Musika Eskolan izango da.

Beltz spiritualak aukeratu dituzte udazkeneko ikastarorako, koru zuzendariari errepertorio desberdin bat eskaintzeko helburuarekin.

Maisu handia

Gary Graden jaunak aurkezpenik ez du behar abesbatzen munduan. Stockholmeko St Jacob abesbatzaren zuzendaria da. Munduko korurik onenetakoa zuzentzen du eta, besteak beste, Tolosako Abesbatza Lehiaketan behin baino gehiagotan ikusi dugu, lehiakide nahiz epaimahaikide gisa.

Jaiotzez estatu batu bada ere, Eric Ericsonekin egin zituen koru-zuzendaritza ikasketak, eta Kjell Ingebretsenekin orkestra-zuzendaritzakoak. Horretaz gain, hainbat koru ere sortu eta zuzendu izan du eta zuzentzen du, ospe handikoak guztiak. Sarritan deitu izan dute Gary Graden mundu osoan zehar ikastaroak emateko, kontzertuak zuzentzeko eta epaimahaikide izateko.



Gary Graden

El atractivo y potencia de Gary Graden han quedado a la vista más de una vez con su participación en numerosas ocasiones en el Certamen Coral de Tolosa. Este mes recibiremos una vez más la visita de este director residente en Suecia, ya que impartirá el curso organizado por la Federación de Coros de Gipuzkoa.

La Federación de Coros de Gipuzkoa ha organizado para este otoño un curso sobre música espiritual. Los días 23 y 24 de octubre el director sueco Gary Graden impartirá ese curso en Tolosa, una actividad que todos los años cuenta con mucho éxito y goza de gran prestigio en el mundo coral.

Tras el éxito que tuvo el año pasado y para no limitar demasiado el número de cantores, se ha querido enfocar como taller. El curso está dirigido tanto a directores como a cantores, y se celebrará en la Escuela de Música Municipal Eduardo Mocoeroa.

Se han elegido para este curso de otoño negros espirituales, cumpliendo con el objetivo de ofrecer un repertorio diferente a los directores corales.


Gran maestro

El señor Gary Graden no necesita ser presentado dentro del mundo coral. Gary Graden dirige el coro St Jacob de Estocolmo, uno de los mejores del mundo. Le hemos visto en numerosas ocasiones en el Certamen Coral de Tolosa, tanto como competidor como miembro del jurado.

Aunque es estadounidense de nacimiento, realizó sus estudios de dirección coral con Eric Ericson y con Kjell Ingebretsen los de dirección de orquesta. Además, ha fundado y dirigido varios coros, todos ellos de gran prestigio. Está muy solicitado para impartir cursos, dirigir conciertos y ser miembro del jurado en todo el mundo.

+ INFO:

www.federagaf.net
www.choir.nu



Kantaka eta bere zarzuela

Lazkaoko Kantaka abesbatza gaztea arrakasta lortzen ari da bere apustu berriarekin, zarzuelarekin hain zuzen ere. Hainbat zarzuelatako hamabost piezaz osatuta dago ikuskizuna. Orain arte eskainitako emanaldietan jendea

txundituta utzi dute gipuzkoarrek. Debora Herrero zuzendutako abesbatzak ikuskizun hori eskaintzen jarraituko du datorren urtean ere.

Oraindik egunak finkatu gabe badituzte ere, zarzuela espainiarraren doinu ezagunenak kantatuko dituzte berriro Lazkaokoek. Zarzuelaren antologiak ari gara; genero horretako historian ibilaldi bat egiten du abesbatzak hamabost kanturen bitartez. Kantakaren apustu berri horretarako herriko Udalaren laguntza izan dute.

Ikuskizuna maiatzaren lehen aurkeztu zuten Lazkaoko Areria zinema-aretoan, eta, herriarrek hala eskatuta, berriro kantatu behar

izan zuten maiatzaren 29an. Uztailean Ordizian aritu ziren eta duela gutxi Soraluzean.

Txulapoz jantzita, lazkaotarrek zarzuelaren konposizio ezagunenak taularatu zituzten, Debora Herrero ordiziarraren zuzendaritzapean. Pablo Sorozabalen “La taberna del puerto”, “Dónde vas con mantón de Manila” La Verbena de la Paloma zarzuelakoa, “Peio Joxepe” Jesus Guridiren “El Caserío” zarzuelakoa, edota “Dónde estarán nuestros mozos” “La del soto del parral”ekoa.

Ikuskizuna oso gustukoa izan zuten entzuleek, era guztietako doinuak eskaini zituztelako, ahotsen kalitateagatik, eta antzezpenean, koreografian eta atrezzoan abesbatzako kideek egindako ahaleginagatik.

Zuzendariak bakarka egindako saioek ere txalo zaparrada jaso zuten. Bi pieza eskaini zituen Arkaitz Mendoza piano-jotzaile andoaindarren eta Eider Varela eta Joseba Muruaren laguntzarekin. Aurkezpenak egiterakoan gatz eta piperrik ez zitzaizen falta izan Ordiziako Arrate Leunda eta Marisol Cavero aktoreei.

En julio actuaron en Ordizia y recientemente en Soraluze.

Los lazkaotarras, ataviados de chulapos y chulapas, realizaron un paseo por las piezas más conocidas de las zarzuelas, bajo la dirección de la ordiziarra Débora Herrero. Piezas de “La taberna del puerto” de Pablo Sorozabal, “Donde vas con mantón de Manila” de la zarzuela “La verbena de la paloma”, “Peio Joxepe” de la zarzuela “El caserío” de Jesús Guridi o “Dónde estarán nuestros mozos” de “La del soto del parral”.

El espectáculo gustó mucho por su variado repertorio, por la calidad de las voces y el esfuerzo realizado por los y las coralistas en la interpretación, la coreografía y el atrezzo.

También fueron muy aplaudidos los solos realizados por la propia directora, que interpretó dos piezas con el acompañamiento al piano del andoaindarra Arkaitz Mendoza, Eider Varela y Joseba Murua. No faltó la sal y pimienta en la presentación realizada por Arrate Leunda y Marisol Cavero, dos actrices de Ordizia.



Kantaka y su zarzuela

La joven coral Kantaka de Lazkao está obteniendo éxitos con su nueva apuesta: la zarzuela. Se trata de un espectáculo compuesto por quince piezas de diferentes zarzuelas, con el que los

gipuzcoanos han cautivado al público en los conciertos ofrecidos hasta ahora. El coro dirigido por Débora Herrero extenderá esta oferta a lo largo del año que viene.

Aunque aún no han cerrado fechas, los de Lazkao volverán a interpretar las melodías más conocidas de la zarzuela española. Se trata de una antología de la zarzuela, un repaso por la historia de este género a través de quince obras. Es la nueva apuesta de Kantaka, que ha contado con la ayuda del Ayuntamiento de la localidad.

Estrenaron el espectáculo el 1 de mayo en el cine Areria de Lazkao y tuvieron que volver a cantar el 29 de mayo por petición popular.

Hodeiertz eta Oroith Sardinian

Tolosako Hodeiertz eta Ordiziako Oroith abesbatzek Sardiniako XIX. Concordia Vocis Nazioarteko Jaialdian parte hartu zuten abuztuaren amaieran. Abuztuaren 27tik 31ra bitartean hiru emanaldi eskaini zituzten bi koruek. Mundu osotik etorritako beste abesbatza batzuk ere parte hartu zuten.

Uhartearen eskainitako emanaldietan, Tolosako Abesbatza Lehiaketan laster aurkeztuko duten programa eskaini zuten

gipuzkoarrek. Programa hori doitzeko baliatu zuten bidaia. Hodeiertzek eta Oroithek Cagliari Sardinian hiriburuan, Tortolin eta Sarrochen abestu zuten.

Enrique Azurza Hodeiertz abesbatzaren zuzendariak bazuen jaialdiaren berri, KEA Ahots Taldearekin izan baitzen duela urte batzuk. Oroith abesbatzaren zuzendariak, Katrin Iturraldek adierazi duenez, “bi koru desberdin gara, aspalditik elkar ezagutzen dugu, baina bidaiaren hasieran abeslariak elkarren artean nahastea kosta egin zitzaigun.

Bidaiarekin batadun hori lortu dugu bi koruen artean eta horrek taldearen kohesioa erraztuko du”.

Cagliariko Coro Polifónico del Centro Universitario Musicale abesbatzak (C.U.M.) antolatzen du jaialdia. Euskal koruez gain, beste hainbat herrialdeetatik etorritako abesbatzak izan ziren: Paraguay, Brasil, Filipinak, Alemania, Holanda eta Italia.

Informazio gehiago:

<http://www.concordiavocis.it/>



Hodeiertz y Oroith en Cerdeña

Las corales Hodeiertz de Tolosa y Oroith de Ordizia participaron a finales de agosto en la XIX. Edición del Festival Internacional Concordia Vocis de Cerdeña. Del 27 al 31 de agosto los dos coros ofrecieron tres conciertos, donde participaron también coros procedentes de todo el mundo.

En los conciertos ofrecidos en la isla, los gipuzcoanos interpretaron el programa que presentarán próximamente en el Certamen

Coral de Tolosa y aprovecharon el viaje para su perfeccionamiento. Hodeiertz y Oroith actuaron en la capital de Cerdeña, en Cagliari, en Tortoli y en Sarroch.

El director del coro Hodeiertz, Enrique Azurza, tenía referencias del festival, ya que unos años participó con el Grupo Vocal KEA. Katrin Iturralde, la directora del coro Oroith, indica que “somos dos coros distintos, nos conocemos desde hace mucho tiempo, pero al principio del viaje nos costó que los coralistas se entre mezclaran. Con el viaje se ha

conseguido esa unión entre ambas agrupaciones y eso facilitará la cohesión del grupo”.

Este festival lo organiza el Coro Polifónico del Centro Universitario Musicale di Cagliari (C.U.M.). Además de los coros vascos, este año participaron coros provenientes de Paraguay, Brasil, Filipinas, Alemania, Holanda e Italia.

Más información en:

<http://www.concordiavocis.it/>



Oreretak eta Landarbasok Txina txunditu dute

Errenteriako abesbatzek sei domina lortu dituzte Shaoxing-en egindako Abesbatzen Olinpiadetan

Urte bikaina izan da Errenteriako abesbatza musikarentzat. Bertako bi abesbatzek sei domina eskuratu dituzte aurtengo udan Txinan egindako Abesbatzen Olinpiadetan. Nazioarteko jaialdi hori bi urtez behin egiten da eta aurten mundu osotik etorritako 400dik gora koru elkartu ditu.

Imanol Elizasu eta Iñaki Tolaretxipiren neska-mutilek 6th World Choir Games jaialdian parte hartu zuten uztailearen 15etik

25era, Txinako Shaoxing herrian. Landarbaso abesbatzak urrezko bi domina eta zilarrezko bat lortu zituen. Urrezkoak ahots nahasietako abesbatzen eta folklore sailetan izan ziren; zilarrezkoa, berriz, musika garaikidearen sailean lortu zuen.

Andra Mariaren abesbatza gazteak, Orereta abesbatzak hiru modalitatetan parte hartu zuten Munduko Olinpiadetan eta hiruretan zilarra eskuratu zuen: haur abesbatzetan, folklorean eta eliz musikan.

Mundu osotik etorritako 400dik gora koru elkartu dira aurten: Alemania, Australia, Belgika, Kolonbia, Kroazia, Danimarka, Eslovenia, Estonia, Euskal Herria, EEUU, Gales, Grezia, Hungaria, Indonesia, Italia, Malaysia, Mexiko, Filipinak, Polonia, Txekiar Errepublikak, Errusia, Hegoafrika, Suedia eta Turkia.

Bi urtez behin kontinente desberdinetan egiten den nazioarteko abesbatza jaialdia da. Kantatzeko zaletasunak batzen duen jendea eta nazioak elkartu nahi dira era baketsu eta lehiaketa justu batean.

Informazio gehiago:
www.worldchoirgames.com



Orereta y Landarbaso conquistaron China

Las corales de Errenteria han obtenido seis medallas en las Olimpiadas Corales celebradas en Shaoxing

Un año excepcional para la música coral de Errenteria. Dos de sus coros han obtenido seis medallas en las Olimpiadas Corales celebradas este verano en China. Este festival internacional se celebra cada dos años y este año reunió a más de 400 coros procedentes de todo el mundo.

Los chicos y chicas de Imanol Elizasu e Iñaki Tolaretxipi participaron en el 6th World Choir Games, en la localidad

Shaoxing de China, del 15 al 25 de julio. Landarbaso abesbatza obtuvo dos medallas de oro y una de plata. Los galardones de oro fueron en las modalidades de coros mixtos adultos y folklore, y el de plata en música contemporánea.

La joven coral de Andra Mari, Orereta abesbatza, participó en tres apartados de la Olimpiada Mundial y en las tres se alzó con la plata: coros infantiles, folklore y música sacra.

Este año se han reunido más de 400 coros procedentes de todo el mundo: Alemania, Australia, Bélgica, Colombia, Croacia, Dinamarca, Eslovenia, Estonia, Euskal Herria, EEUU, Gales, Grecia, Hungría, Indonesia, Italia, Malasia, México, Filipinas, Polonia, República Checa, Rusia, Sudáfrica, Suecia y Turquía.

Es un festival coral internacional que tiene lugar cada dos años en diferentes continentes. Se trata de reunir de manera pacífica y en un concurso justo a gente y a naciones unidas por la afición de cantar.

Informazio gehiago:
www.worldchoirgames.com





Imanol Elizasu, Orereta abesbatzaren zuzendaria:

«Ekialdeko kulturetatik ikasteko asko daukagu»

Nolatan aurkeztu zineten Munduko Olinpiadetara?

Bi modalitate daude: Open Competition eta Champion Competition. Aurrenekoa edozein aurkeztu daiteke. Bigarrenean sartzeko, berriz, nazioarteko sariren bat edo gonbidapenen bat eduki behar duzu. Guk nazioarteko saria genuen.

Nolako esperientzia izan da?

Oso baikorra. Ikasturte osoa eman dugu prestatzen, urteetako errepertorioa eraman dugu, baina azken hiru hilabeteetan burubelari aritu gara. Oso kontentu nago gazteek nola erantzun dieten nekeari eta presio momentu horiei. Musika eta koreografia lantzen asko lagundu digute. Jasone Albak eta Agustin Arrazolak.

Zer nolako giroa egon da?

Ikaragarria da. 400dik gora koruk parte hartu genuen eta guztira 20 kategoria. Barakaldoko BECen tamainako toki batean egin zuten sari banaketa. Ia 25.000 abeslarik parte hartu

genuen. Lau pantaila handi zeuden ikusleentzako.

Beste koruekin harremanik egin duzue?

Ekitaldietan eta kontzertuetan harreman pixka bat izan dugu, baina denbora askorik ere ez dugu eduki. Ez da erraza. Jangelan tokatzen ginenean bai. Koruko gazteek beti aprobetxatzen zuten argazkiak ateratzeko, haiekin hitz egiteko, etab. Errusiar batzuk hurbildu ziren eta elkarri informazioa eman genion. Horrelakoetan ate asko irekitzen dira.

Epaimahaiak zer esan dute zuen lanari buruz?

Zazpi pertsona zeuden epaimahaian, tartean Vytautas Miskinis. Baina bera kenduta,
